

PERTSONA ERREFUXIATUEN HARRERA EGITEKO BALIABIDEEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko irailaren 24eko Udalbatzak honako mozio hau onartu zuen, Udal Gobernuko bi alderdien bozkekin:

1.- Donostiako Udalbatzak, Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egitekoa ere.

2.- Donostiako Udalbatzak hitzematzen du elkarlanean arituko dela gainerako erakundeekin (Gobernu zentrala, Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoako Foru Aldundia, beste udalak eta abar) errefuxiatuak hartzeko sare bat egituratzeko, eta egoera tragiko honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa hartuko duela, haren ondorioak arintzeko eskura dituen bitartekoak jarritz.

Irailaren 30ean, Donostian, Goikoa Jauregian, Giza Eskubideen Batzordeak bilera berezia egin zuen. Bertan, Gipuzkoako Errefuxiatuen Plataformak (22 erakundez osatua) agerraldia egin zuen, gai honi buruzko informazioa emate aldera eta bere planteamendua azaltzeko.

Plataformaren lana hiru ekintza mailatan oinarritzen da:

- Europar Batasunaren eta Hirugarren Munduko Herrialdeak izeneko arteko harremana, garapenerako lankidetzan aldatu beharreko alderdiak aztertzeko.
- Europar Batasunean egoera irregularrean dauden pertsonen egoera erregularizatzea eta kanporatuak ez izatea.
- Aterpe bila datozen pertsonen harrera era eraginkor batean bideratzea.

Azaroaren 16ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean, eta 17 eta 18ko Ogasuneko Batzordean izandako agerraldietan Udal Gobernuko ordezkariak honako hau adierazi zuten:

- Etxegintzatik hainbat etxebizitza gordeko direla errefuxiatuentzat.
- Datu base bat sortu dela errefuxiatuei laguntza emateko prest zegoen jendearekin: dagoeneko 25 senidez osatutako zerrenda dago.
- Aurrekontuetan bi partida gorde direla errefuxiatuentzat: 30.000 eurokoa Aniztasun Kultural Sailaren aurrekontutik kenduko da eta 52.338,58 eurokoa Lankidetzza Sailean ematen diren laguntzetatik kenduko da.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Azaroaren 16ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean, gaiari zegokion interpelazioari erantzuterakoan, Aitziber San Ramon zinegotzi ordezkariak ez zuen zehaztu nolakoa izango den Gurutze Gorria, CEAR eta ACCEMekin egingo den elkarlana, ezta nola erabakiko den egoera honi aurre egiteko lantaldearen osaketa. Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari lan batzorde bat eratu dezala Udaleko teknikari eta gaian adituak diren elkarteekin: errefuxiatuentzat bideratuko diren baliabideekin zer egin daitekeen aztertzeko, esku hartzea nolakoa izango den erabakitzeko eta hirian pertsona horiek gizarteratzen laguntzeko sare bat egon dadin.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari laguntza eskaini duten hiritarren datu basea egiterakoan Gipuzkoako Errefuxiatuen Plataformak emaniko irizpideen arabera osa dezala.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari datu-basean dauden hiritarrei gaiaren inguruko prestakuntza eta formakuntza eskaintzeko, ongi informatuta egon daitezen. Hau Gipuzkoako Errefuxiatuen Plataformaren bidez bideratu daiteke.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Olaia Duarte Lopez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia